FEDERACIÓN ESPAÑOLA
DE ASOCIACIONES NAGUSILAN

nagusilan

ADIN NAGUSIKOEN
GIZA BOLUNTARIOTZA
VOLUNTARIADO SOCIAL
DE MAYORES

F.P.
Publicorreo
ÓPTIMO

**BOLETÍN DE NAGUSILAN**

Número 158 • JULIO 2023
Depósito legal D.L./L.G. SS-1120/01

## ÉXITO ROTUNDO DEL CONCIERTO SOLIDARIO DE NAGUSILAN

2/3/4/5

# KONTZERTU SOLIDARIOAK ERABAKETO ARRAKASTA IZAN DU

## REPORTAJE

*Nagusilan Legazpi, ganadora del Premio Olaria 2023*
***Nagusilan Legazpik Olaria 2023 saria jaso du***

8/9

## ASAMBLEA

*Asamblea General Ordinaria*
***Ohiko Batzar Nagusia***

14/15



**FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE ASOCIACIONES NAGUSILAN**
**Tel.: 943 47 50 21**
Resurrección M.ª de Azkue, 32 behea
20018 Donostia-San Sebastián
e-mail: info@nagusilan.org
**www.nagusilan.org**
@nagusilan

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE DERECHOS SOCIALES Y AGENDA 2030
SECRETARÍA DE ESTADO DE DERECHOS SOCIALES
IMSERSO



*Más de **2.000 personas** se dieron cita en el gran auditorio **Kursaal** para homenajear y reconocer la labor del personal sociosanitario y el voluntariado durante la pandemia.*

# Éxito rotundo del **Concierto Solidario** de Nagusilan

El llamamiento realizado por Nagusilan tuvo una respuesta extraordinaria por parte de la ciudadanía. El **30 de marzo**, el gran auditorio del Palacio Kursaal se llenó por completo, colgando el cartel de "entradas agotadas".
Bajo la batuta de **Eros Quesada** y la inestimable colaboración de **Igor Arroyo**, Director de los 4 Coros participantes, las y los solistas **María Martín**, **Lucía Gómez, Josu Cabrero** y **Juan Laborería**, junto a la joven orquesta formada por estudiantes de **Musikene**, así como músicos voluntarios, cautivaron al público congregado.
La obra elegida para la gran ocasión fue la **9º Sinfonía de Beethoven**.
Tal y como ha expresó **Joserra Ecenarro, Presidente de Nagusilan**, "hemos decidido interpretar esta pieza por su significado. Su cuarto movimiento, conocido como el "Himno a la Alegría" se ha convertido en un símbolo de libertad, unión y fraternidad, un hecho fundamental para nuestra asociación."
Al acto acudieron numerosos representantes institucionales. **Nekane Arzallus**, Teniente Alcalde de Donostia-San Sebastián, **Maite Peña**, Diputada de Políticas Sociales; **Txaro Rodrigo**, Directora General de Atención a la Dependencia y la Discapacidad; **Miren Albistur** Directora General de Cultura; **Lide Amilibia**, Viceconsejera de Políticas Sociales; **José Antonio de la Rica**, Director de Atención sociosanitaria de la consejería de Salud; las concejala del Ayuntamiento de Donostia **Mariaje Idoeta**; **Anuska Esnal**, Alcaldesa de Orio, Xabier Letxundi, Alcalde de Hernani, junto a concejales y concejalas de ambos municipios.
**Musikene**, el Centro Superior de música del País Vasco, estuvo representado por **Jesús Echeverría** subdirector de Relaciones Externas; **Maite Arruabarrena**, cantante de ópera y profesora; **Nerea Erauskin**, cantante y profesora; y **Sergio**



# Nagusilan elkartearen **Kontzertu Solidarioak** erabateko arrakasta izan du

Bideoa ikusi
Ver vídeo

Argazkiak
Fotografías

**Barranco**, profesor del centro. Asimismo, respondieron afirmativamente miembros de instituciones y empresas que han colaborado en el concierto: **Subdelegación de Gobierno**, **Kutxa Fundazioa**, **Real Sociedad Fundazioa**, **Euskadiko Orkestra**, **Irizar** y **Diario Vasco**. Y 30 personas de **Astigarraga**, fruto del sorteo de entradas realizado en dicho municipio.

Desde el escenario, los **70 miembros de la orquesta** hicieron vibrar al público, junto a los **170 coralistas** de las agrupaciones **Kantakidetza**, **Aiztondo de Astigarraga**, **Salatxo de Orio** y **Kantuz de Hernani**, quienes llenaron el escenario. Colocados en 7 filas, sopranos, altos, tenores y bajos de los 4 coros se sintetizaron en uno sólo, todos y cada uno de ellos han sido imprescindibles para la realización de este proyecto.

A la finalización de la obra, los aplausos duraron más de 5 minutos. Como muestra del profundo agradecimiento al público, la orquesta y coro, junto a las y los solistas, cantaron el **"Agur Jaunak eta Andreak"** que ha sido arreglada por **Iñaki Carcavilla**, alumno de composición de Musikene, y que ha puesto en pie a todo el auditorio, creando un momento único y emocionante.

Nagusilan elkarteak egindako deialdiak aparteko erantzuna izan zuen herritarren aldetik. **Martxoaren 30ean**, Kursaal Jauregiko auditorium handia erabat bete zen, sarrera agortuen kartela eskegiz.

**Eros Quesada**ren gidaritzapean eta **Igor Arroyo Kantakidetza**, **Astigarragako Aiztondo**, **Hernaniko Kantuz** eta **Orioko Salatxo** Abesbatzetako Zuzendariaren laguntza paregabearekin, **María Martín**, **Lucía Gómez**, **Josu Cabrero** eta **Juan Laborería** bakarlariek, **Musikene**ko 70 ikaslek osatutako orkestra gazteak eta musikari boluntarioek bildutako publikoa liluratu zuten.

**Beethovenen 9. sinfonia** izan zen obra aukeratua. **Nagusilaneko Presidentea den Joserra Ecenarrok adierazi bezala,** "pieza hau interpretatzea erabaki dugu, duen esanahiagatik. Bere laugarren mugimendua, Alaitasunaren Ereserkia bezala ezaguna, askatasunaren, batasunaren eta anaitasunaren sinbolo bihurtu da, gure elkartearentzat funtsezkoa dena."

Ekitaldian erakundeetako eta enpresa laguntzaileetako ordezkari ugari izan ziren. **Nekane Arzallus**, Donostiako alkateordea, **Maite Peña**, Gizarte Politiketako diputatua; **Txaro Rodrigo**, Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretarako zuzendari nagusia; **Miren Albistur**, Kulturako zuzendari nagusia; **Lide Amilibia**, Gizarte Politiketako sailburuordea; **José Antonio de la Rica**, Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko zuzendaria; Donostiako Udaleko zinegotzia **Mariaje Idoeta**. **Anuska Esnal,** Orioko alkatea, **Xabier Letxundi**, Hernaniko alkatea, bi udalerrietako zinegotziekin batera.

**Musikene**, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia, **Jesús Echeverría** Kanpo Harremanetarako zuzendariordeak, **Maite Arruabarrena** opera kantari eta irakasleak, **Nerea Erauskin** kantari eta irakasleak eta **Sergio Barranco** ikastetxeko irakasleak ordezkatu zuten.

Baita ere, **Gobernuaren Ordezkariordetzako**, **Musikeneko**, **Kutxa Fundazioko**, **Real Sociedad Fundazioko**, **Euskadiko Orkestrako** eta Irizarreko kideak ere bertaratu dira, baita **Astigarragako 30 pertsona** ere, udalerri horretan egindako sarreren zozketaren ondorioz.

Eszenatokitik, **orkestrako 70 kideek** entzuleak zirrarazi zituzten, **Kantakidetza**, **Astigarragako Aiztondo**, **Orioko Salatxo** eta **Hernaniko Kantuz taldeetako 170 koralistekin** batera. 7 ilaratan jarrita, 4 abesbatzetako sopranoak, altoak, tenoreak eta baxuak abesbatza bakar batean sintetizatu ziren. Guztiak ezinbestekoak izan dira proiektu hau gauzatzeko.

Obraren amaieran, txaloek 5 minutu baino gehiago iraun zuten. Entzuleei esker ona adierazteko, orkestrak eta abesbatzak, bakarlariekin batera, **Iñaki Carcavillak**, Musikeneko konposizio ikasleak, moldatutako **"Agur Jaunak eta Andreak"** abestu zuten, entzule guztiak zutik jarriz, une paregabea eta zirraragarria sortuz.

# Preparativos antes del concierto

El concierto solidario nos ha valido para crear y reforzar puentes con numerosas instituciones y empresas, así como para ganar notoriedad y visibilidad en Euskadi.



**FUNDACIÓN REAL SOCIEDAD**

El grupo organizador del concierto acudió el día 8 de marzo al estadio Anoeta para conocer al equipo femenino de la Real Sociedad y visitar las instalaciones y el campo.

La Fundación de la Real Sociedad lo dispuso todo para que se pudiera realizar un extenso trabajo de divulgación. Durante los partidos de liga celebrados en Donostia los meses de marzo se proyectó un vídeo para animar a los presentes a acudir al concierto. También se divulgó la información en sus redes sociales y boletín interno.

De cara a futuro, Nagusilan está negociando diferentes colaboraciones con la Fundación para poder tejer lazos más duraderos y enriquecedores para ambas partes.



# Kontzertuaren prestaketak

Kontzertu solidarioak erakunde eta enpresa ugarirekin zubiak sortzeko eta indartzeko balio izan digu, baita Euskadin ospea eta ikusgarritasuna irabazteko ere.

**REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA**

Kontzertuko talde eragilea martxoaren 8an joan zen Anoeta estadiora Realeko emakumezkoen taldea ezagutzera eta instalazioak eta zelaia bisitatzera.

Real Fundazioak dena antolatu zuen dibulgazio-lan zabala egin ahal izateko. Martxoan Donostian jokatutako ligako partidetan bideo bat proiektatu zen, bertaratutakoak kontzertura joatera animatzeko. Informazioa sare sozialetan eta barne-buletinean ere agertu zen.

Etorkizunari begira, Nagusilan hainbat lankidetza negoziatzen ari da Fundazioarekin, bi aldeentzat harreman iraunkorragoak eta aberasgarriagoak ehuntzeko.

**Bideoa ikusi**
**Ver vídeo**



*El día anterior al concierto, el 29 de marzo, la OSE albergó el ensayo general.*

*Kontzertuaren aurreko egunean, martxoaren 29an, EOSen egoitzan entsegu orokorra egin zen.*

# Ensayo General en la Sede de la OSE
# Entsegu orokorra EOSen egoitzan

**Ikusi nahi duzu / ¿Quieres verlo?**

# Ensayo General en Musikene con la ETB1

*Musikene cedió su sala de conciertos para la realización de varios ensayos. A uno de ellos acudieron las reporteras del programa BIBA ZUEK! de la ETB1. Entrevistaron a los miembros del coro y elaboraron un extenso reportaje.*





**Erreportajea ikusi**
**Ver reportaje**
(minuto 34:36)

*Musikenek bere kontzertu-aretoa laga zuen hainbat entsegu egiteko. Haietako batean izan ziren ETB1eko BIBA ZUEK! saioko kazetariak. Abesbatzako kideak elkarrizketatu eta erreportaje luze bat egin zuten.*

# Entsegu orokorra Musikenen ETB1ekin



# ¡Eskerrik asko Eros!





**El coro de Nagusilan se ha despedido de su Director, Eros Quesada Ventura, tras más de 4 años de andadura juntos.**

Todos los miembros del coro se han unido en este sentido homenaje a su querido Director. El 21 de junio, comieron juntos en el restaurante Aldaba de Lorea donde le hicieron entrega de varios regalos. Muchos no pudieron reprimir su emoción, dando grandes abrazos a Eros, a quien le desearon la mejor de las suertes en su próxima andadura en el extrajero, donde seguirá cursando sus estudios de dirección de Orquesta.

### CONCIERTO EN ERROTABURU

Ese mismo día también celebraron su último concierto con Quesada, quien los dirigió en la parroquia del Espíritu Santo (Errotaburu).

Sin duda, Nagusilan ha contado con un Director magnífico. ¡Te echaremos de menos, amigo!

**Nagusilaneko abesbatzak agur esan dio bere zuzendari Eros Quesada Venturari, elkarrekin 4 urte baino gehiago eman ondoren.**

Abesbatzako kide guztiek bat egin dute zuzendari maiteari egindako omenaldian. Ekainaren 21ean, elkarrekin bazkaldu zuten Loreako Aldaba jatetxean, eta hainbat opari eman zizkioten. Askok ezin izan zioten emozioari eutsi, besarkada handiak eman ez Erosi, zorterik onena opaz hurrengo ibilbideari ekiteko atzerrian, non, Orkestrako zuzendaritza-ikasketak egiten jarraituko duen.

### KONTZERTUA ERROTABURUN

Egun berean ospatu zuten bere azken kontzertua Quesadarekin eta honek zuzendu zituen Espiritu Santuaren parrokian (Errotaburu).

Zalantzarik gabe, Nagusilanek zuzendari bikaina izan du. Zure falta sumatuko dugu, lagun!








# Presentación de manuales de voluntariado en Tabakalera

*Los manuales con información sobre nuestra asociación están disponibles en formato digital e impreso.*

Con la presentación del 6 de junio en Tabakalera hemos dado a conocer los manuales que recogen las claves del voluntariado.

Con el apoyo de la Fundación Kutxa hemos publicado cinco manuales que recogen la información necesaria para la correcta realización de la labor voluntaria.

Así como hay varias formas de ayudar a las personas que se encuentran en situación de soledad no deseada, las vías para ayudar también son múltiples. Por este motivo, en cada publicación explicamos los pasos a seguir en cada caso.

# Boluntariotza eskuliburuen aurkezpena Tabakaleran

*Gure elkarteari buruzko informazioa jasotzen duten eskuliburuak digitalki eta inprimatuta daude eskuragarri.*

Ekainaren 6an Tabakaleran egin zen aurkezpenarekin boluntariotzaren gakoak biltzen dituzten eskuliburuak ezagutzera eman ditugu.

Kutxa Fundazioaren babesarekin informazio desberdina jasotzen duten bost eskuliburu atera ditugu. Liburuxka hauen helburua Nagusilanera jotzen duten boluntarioei beraien ekimen solidarioa gauzatzeko beharrezko informazioa eskaintzea da.

Bakarrik daudenei laguntzeko hainbat modu dauden bezala, laguntzeko bideak ere anitzak dira. Arrazoi horregatik, kasu bakoitzean jarraitu beharrezko pausoak azaltzen ditugu publikazio bakoitzean.




**Eskuliburuak deskargatu**
**Descargar manuales**




**Amaia Otazo Aseguinolaza**
*Kutxa Ekoguneako Koordinatzailea*

*"Kutxa Fundaziotik Nagusilanen eskuliburuak diruz lagundu ditugu. Gure helburua, aliantzen bidez boluntariotza sustatzea da eta zuenak bezalako elkarteei bidea erraztea. Gure nahia Gizartearen kolektibotasun konpromisoa bultzatzea da eta nola lagundu boluntarioak izan nahi dutenei".*




**Joserra Ecenarro**
*Nagusilaneko Presidentea*

*"Cuando una persona se acerca a Nagusilan se acerca con mucha ilusión y motivación, pero, también con dudas. Por esa razón, hemos elaborado estos manuales, para ayudar a todas aquellas personas a dar respuesta a las preguntas que les surjan".*

// SARIAK



# Nagusilan LEGAZPI, ganadora del Premio Olaria 2023

*El premio Olaria se distingue por la iniciativa o actividad social que ha destacado a lo largo del año o durante toda su trayectoria, como es el caso de Nagusilan Legazpi.*



El pasado 3 de junio se celebró la gran fiesta con un multitudinario acto en la plaza mayor de Legazpi. Asun Ugarte y Juana Mari Orikain, miembros de Nagusilan, fueron las encargadas de recibir el premio de manos de la ex alcaldesa, Koldobike Olabide. «Hoy, las personas voluntarias de Nagusilan Legazpi nos sentimos orgullosas y agradecidas por haber sido los ganadores de este reconocimiento», expresaba Ugarte. Y añadió que «Legazpi es uno de los pueblos más envejecidos de Gipuzkoa y el mayor porcentaje de nuestros voluntarios son mayores de 60 años. Sin embargo, ¡qué alegría encontrar también gente joven entre nuestro voluntariado! ¡Siempre estamos diciendo que debería haber más participación por parte de los jóvenes, en nuestro caso lo tenemos! ¡Que sepáis que nuestras puertas están abiertas para los que estéis pensando en hacer voluntariado! Todas y todos formamos Nagusilan.»

Le siguieron la Soka Dantza, Zinta Dantza y el baile de la Hera conducidos por Sustraiak, y un lunch en el Salón de Plenos del Ayuntamiento.







# Nagusilan LEGAZPIk

## Olaria 2023 saria jaso du

*Olaria saria urtean zehar edo ibilbide osoan nabarmendu den ekimen edo jarduera soziala goraipatzeagatik bereizten da, Nagusilan Legazpiren kasuan bezala.*

Joan den ekainaren 3an festa handia ospatu zen Legazpiko plaza nagusian ekitaldi jendetsu batekin. Asun Ugarte eta Juana Mari Orikain Nagusilaneko kideek jaso zuten saria Koldobike Olabide alkate ohiaren eskutik. «Gaur, Nagusilan Legazpiko boluntarioak harro eta eskertuta gaude sari honen irabazleak izan garelako», adierazi zuen Ugartek. «Legazpi Gipuzkoako herri adinduenetariko bat da eta gure boluntarioen zati handiena 60 urtetik gorakoa da. Hala ere, ze poza gure boluntarioen artean jende gaztea ere topatzea! Beti esaten ari gara gazteen aldetik parte hartze gehiago egon beharko litzatekeela, ba gurean badugu, eskerrik asko Nagusilan Legazpi barruan egoteagatik! Eta jakin gure ateak irekita daudela etorriko zaretenentzako ere! Denok osatzen dugulako Nagusilan.» gehitu zuen.

Ondoren, Sustraiak taldeak gidatutako Soka Dantza, Zinta Dantza eta Heraren Dantza egin ziren eta Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan lunch batekin amaitu zen jaia.



**Asun Ugarte**
*Nagusilaneko Presidenteordea eta Legazpiko boluntarioa*
*Vicepresidenta de Nagusilan y voluntaria de Legazpi*

**1 Zer da Nagusilan Legazpirentzat Olaria saria jasotzea?**
Izugarrizko ohorea. Bai guretzako eta baita gure aurretik lanean aritu direnentzako ere, beraiek gabe ez ginateke hemen egongo eta.

**2 Sari hau jasotzeak motibazioa ematen dizue lan hau egiten jarraitzeko?**
Bai, horrela da. Azken finean goraipamen bat da orain arte lana egin dutenei eta baita ere ilusio iturria jende berria erakartzeko. Sariarekin ikusgarritasuna irabazi dugu herri mailan.

**3 Nola aldatu da Nagusilan Legazpi 2000. urtean hasi zenetik orain arte?**
Belaunaldi berriekin, boluntariotza egiteko modua ere garatzen joan da. Gaur egun elkarteetatik eta hainbat zentroetatik jarduera eta ekitaldi ezberdinak eskatzen dizkigute. Beraz, boluntarioak horretara moldatu gara eta horregatik esaten dugu garrantzitsua dela ez bakarrik boluntarioa izatea, baizik eta ikasketa eta formakuntza ere edukitzea.

**4 Zer irabazten duzu boluntario izanez?**
Guk ematen duguna baino handiagoa da jasotzen dugun guztia. Beraien irribarrea, esker ona, begietako distira... hori da guri betetzen diguna. Badirudi guk asko ematen dugula, baina gehiago jasotzen duguna.

**5 Nola animatuko zenuke Legazpiko pertsona bat boluntario izateko?**
Gure albora etorri eta boluntariotza zer den ezagutu dezala, hori eginez gero ziur gurekin geratuko dela.

**1 ¿Qué supone para Nagusilan Legazpi recibir el premio Olaria?**
Un honor tremendo. Tanto para nosotros como para los que nos han precedido, porque sin ellos no estaríamos aquí.

**2 ¿Les motiva recibir este premio para seguir haciendo este trabajo?**
Sí, es así. Al fin y al cabo es un elogio a quienes hasta ahora han hecho el trabajo y también una fuente de ilusión para atraer a gente nueva. Con el premio hemos ganado visibilidad a nivel local.

**3 ¿Cómo ha cambiado Nagusilan Legazpi desde que comenzó en el año 2000 hasta ahora?**
Con las nuevas generaciones, también se ha ido desarrollando la forma de hacer voluntariado. Hoy desde las asociaciones y diferentes centros nos demandan diferentes actividades y eventos. Por lo tanto, los voluntarios nos hemos adaptado a ello y por eso decimos que es importante no sólo ser voluntario, sino también tener aprendizaje y formación.

**4 ¿Qué ganas siendo voluntaria?**
Todo lo que recibimos es mayor que lo que nosotros damos. Su sonrisa, su gratitud, el brillo de sus ojos... eso es lo que nos llena a nosotros. Parece que nosotros damos mucho, pero más lo que recibimos.

**5 ¿Cómo animarías a una persona de Legazpi a ser voluntaria?**
Que venga a nuestro lado y conozca lo que es el voluntariado, si lo hace seguro que se queda con nosotros.

# Dando a conocer **Nagusilan**

# **Nagusilan** aditzera ematen

**¿Cómo se encuentra en estos momentos el grupo de voluntarios de la comarca?**
Hoy nos encontramos en Aretxabaleta. Aquí, por ejemplo, llevamos muchos años con el mismo número de personas y nuestro deseo es atraer a más gente.

**¿Y cómo van las presentaciones?**
Lo que nos hemos dado cuenta es que cuando hacemos la convocatoria, el boca a boca atrae más gente. Al final, lo más atractivo es la propia experiencia. Hablar en primera persona.

**¿El ayuntamiento os da facilidades?**
En el caso de Aretxabaleta el ayuntamiento siempre nos da facilidades para organizar reuniones, conferencias, actos y demás actividades.

**¿Qué tipo de acciones lleváis a cabo en Debagoiena?**
Hemos realizado varias salidas al pantano de Urkulu. Sin embargo, todavía estamos sufriendo las consecuencias de la COVID-19. Antes, por ejemplo, hacíamos muchas actividades en la residencia de Bergara que ahora no podemos. Antes, en el comedor general todo el mundo se reunía a la hora de comer, pero ahora se clasifican en plantas respetando el número máximo de personas que permite el nuevo protocolo.

**¿Animáis a vuestro entorno para que sean voluntarios/as?**
Nosotros siempre animamos a nuestra cuadrilla, amigos, familia o personas de nuestro entorno a ser voluntarios. Creemos que además de ofrecer compañía a esa persona con la que estás colaborando, es beneficioso para ti.

Arantxa Palacio Vijandi, Herminia Gómez de Pablo y Bittori Bergara Ibarzabal, voluntarias.

Arantxa Palacio Vijandi, Herminia Gómez de Pablo eta Bittori Bergara Ibarzabal boluntarioak



**Nola dago momentu honetan eskualdeko boluntario taldea?**
Gaur Aretxabaletan aurkitzen gara. Hemen adibidez, urte asko daramatzagu pertsona kopuru berdinarekin eta gure nahia jende gehiago erakartzea da.

**Eta nola doaz aurkezpenak?**
Konturatu garena zera da, ahoz ahoko deialdia egiten dugunean jende gehiago interesatzen dela. Azkenean, norberaren esperientzia da erakargarriena. Lehen pertsonan hitz egitea.

**Udalak ematen al ditu erraztasunak?**
Bai. Aretxabaletaren kasuan behintzat udalak beti ematen dizkigu erraztasunak bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta bestelakoak antolatzeko

**Zein ekintza mota egiten dituzue Debagoienan?**
Besteak beste, Urkulura irteerak egin izan ditugu. Hala ere, oraindik COVID-19aren ondorioak pairatzen ari gara. Lehen adibidez, ekintza asko egiten genituen Bergarako egoitzan, orain ekidin dizkigutenak. Adibidez, lehen jangela orokorrean jende guztia elkartzen zen bazkaltzerako garaian, orain ordea solairuetan sailkatzen dira protokolo berriak onartzen duen pertsona kopuru maximoa errespetatuz.

**Zuen ingurukoak animatzen al dituzue boluntario izatera?**
Guk beti animatzen ditugu gure koadrila, lagun, familia edo inguruko pertsonak boluntario izatera. Uste dugu laguntzen ari zaren pertsona horri konpainia eskaintzeaz gain, zuretzako ere onuragarria izan dela.

*En la comarca de Debagoiena se han celebrado varias presentaciones para dar a conocer en Nagusilan. La responsable ha sido Arantxa Palacio, coordinadora local.*

*Debagoienako eskualdean aurkezpen bilerak egin dira Nagusilan ezagutzera emateko. Arantxa Palacio, bertako koordinatzailea, izan da arduraduna.*




# La iniciativa **Nagusikleta** en marcha

# **Nagusikleta** ekimena martxan

**Nagusikleta es una iniciativa que ha salido adelante fruto de la colaboración entre Balazta y Nagusilan Bidasoaldea. El objetivo de este proyecto es ofrecer un servicio innovador y bueno a las personas con movilidad reducida; dando paseos en triciclos y pedaleando con la intención de combatir la soledad no deseada.**

**Balazta eta Nagusilan Bidasoaldearen arteko elkarlanarekin ondorioz aurrera atera den ekimena da Nagusikleta. Proiektu honen helburua mugikortasuna murriztuta duten pertsonei zerbitzu berritzaile eta on bat eskaintzea da; trizikloetan paseoak eskainiz eta pedalei eraginez nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko asmoz.**

Hace 2 años el responsable de la iniciativa **"Bizikletan Adinik ez"**, Iñigo Munilla, se trasladó a Hondarribia. Realizó algunas salidas con los usuarios de la residencia Caser y los de la Residencia San Gabriel, viendo que era una iniciativa muy bonita, junto con miembros de Nagusilan se pusieron en contacto con Munilla. Durante el curso, conocieron a los de la sociedad **Balazta** y entonces, decidieron impulsar la iniciativa para la zona del Bidasoa.

Tras estructurar el proyecto, fue presentado a los **Ayuntamientos de Irún y Hondarribia, Caja Laboral, Diputación Foral de Gipuzkoa** y otras instituciones.

Han conseguido incorporar la iniciativa a los **presupuestos de Hondarribia de 2023** y este año se comprará el triciclo. La **Diputación Foral** también ha subvencionado la compra de una unidad, así como **Caja Laboral**; de esta manera, el grupo contará con un total de 3 vehículos. Con el **Ayuntamiento de Irún** se han iniciado las negociaciones para la compra de dos dispositivos.

El triciclo aportado por **Caja Laboral** ya ha llegado. El 24 de mayo se realizó la primera salida con los usuarios de la Residencia San Gabriel. En cada una de las **Nagusikletas** salieron a pasear en dos turnos turnos de una hora de duración 2 personas usuarias.

En junio han realizado cursos para enseñar a los nuevos conductore, quienes estarán asegurados, cómo utilizar el triciclo. Las **Nagusikletas** disponen de un pequeño motor eléctrico que acompaña al conductor-ciclista.

Una vez finalizada la excursión, los vehículos se guardan en un local cedido por la **parroquia de Hondarribia**.

Como explican los miembros del grupo «uno de nuestros objetivos es atraer nuevas personas voluntarias a Nagusilan, sobre todo más jóvenes. Además, queremos llegar a los domicilios particulares. Para ello estamos contactando con personas de diferentes barrios.»

Orain dela 2 urte **"Bizikletan Adinik ez"** ekimeneko arduraduna, Iñigo Munilla, Hondarribira joan zen. Caser egoitzako erabiltzaileekin irteera batzuk egin zituen eta San Gabriel Egoitzakoek, ekimen oso polita zela ikusita, Nagusilaneko kideak Munillarekin jarri ziren kontaktuan. Ikastaroan zehar, **Balazta** elkartekoak ezagutu zituzten eta orduan, Bidasoa ingururako ekimena bultzatzea erabaki zuten.

Proiektua egituratu ostean, **Irungo eta Hondarribiko Udaletxeei, Caja Laborali, Gipuzkoako Foru Aldundiari** eta beste hainbat erakunderi aurkeztu zieten.

**2023ko Hondarribiako aurrekontuetan** ekimena txertatzea lortu dute eta aurten erosiko da trizikloa. **Foru Aldundiak** ere beste **Nagusikleta** bat erosteko diru laguntza eman du, eta baita **Caja Laboralek** ere, guztira 3 triziklo izango dituzte. **Irungo Udalarekin** ere negoziaketak abian daude eta bi gailu eskatu zaizkio.

**Caja Laboralek** emandakoa iritsi da dagoeneko. Maiatzaren 24an egin zuten lehen irteera San Gabriel egoitzako erabiltzaileekin. **Nagusikleta** bakoitzean 2 erabiltzaile eraman zituzten eta bi buelta eman, bikote bakoitzarekin ordubete luzatuz.

Ekainean ikastaroak egin dituzte gidari berriei trizikloa nola erabili erakusteko, gidariak gainera aseguratuta daude. **Nagusikletek** motor elektriko txiki bat dute gidari-txirrindulariari laguntzen diotenak.

Behin txangoa amaitu ostean, trizikloak **Hondarribiako parrokiak** utzitako lokal batean gordetzen dira.

Taldekideek azaldu bezala «gure helburuetako bat Nagusilanera boluntario berriak erakartzea da, gazteagoak batez ere. Gainera, egoitzetan dauden erabiltzaileez gain, etxeetara ere iritsi nahi dugu. Horretarako, auzo ezberdinekin harremanetan jartzen ari gara.»







# Nagusilan Madrid adquiere cada día más protagonismo

*Durante estos últimos meses Nagusilan Madrid ha participado en numerosos congresos, jornadas y ofrecido conferencias relacionadas con el acompañamiento y hacer frente a la soledad no deseada.*

*Azken hilabeteotan, Nagusilan Madrilek hainbat kongresu eta jardunalditan parte hartu du, eta nahi ez den bakardadeari aurre egiteko eta laguntzeko hitzaldiak eskaini ditu.*

### ESCUELA DE BIENESTAR EMOCIONAL

Con el objetivo de acompañar a mujeres mayores viudas que viven situaciones de soledad no desea, Gonzalo Berzosa, Vicepresidente de la Federación española de Nagusilan y miembro de la agrupación de Madrid, ha ofrecido conferencias-coloquio sobre temas de psicología positiva, gestión emocional y vida activa relacionada. Un total 34 conferencias especiales demandadas por entidades y asociaciones:

### ESCUELA DE BIENESTAR EMOCIONAL

Ongizate Emozionaleko Eskola Bakardade-egoerak bizi dituzten adineko emakume alargunei laguntzeko asmoz, Gonzalo Berzosa Nagusilaneko Espainiako Federazioko lehendakariorde eta Madrilgo elkarteko kideak psikologia positiboko, emozioen kudeaketako eta bizitza aktiboko gaiei buruzko hitzaldi-solasaldiak eskaini ditu. Erakunde eta elkarteek eskaturiko 34 hitzaldi berezi eskainiz:

- **Madrid:** 20 conferencias/hitzaldi
- **Getafe:** 5 conferencias/hitzaldi
- **Alcalá de Henares:** 5 conferencias/hitzaldi
- **Alcorcón:** 4 conferencias/hitzaldi





**CENIE. Centro Español Investigación Envejecimiento**
*Madrid. Febrero, 2023*




**Jornada Salud Mental y su relación con la soledad no deseada. Papel del voluntariado**
*Hospitales de Madrid. Marzo y Junio, 2023*




**CEOMA. Congreso Nacional de Personas Mayores**
*Nagusilan recurso contra la soledad. Barcelona. Abril, 2023*




**Retos de la nueva longevidad**
*Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. Euskal Etxea Madrid. Mayo, 2023*




**Políticas de acción con y para las personas mayores**
*Fundación Konrad Adenahuer. Toledo. Junio, 2023*




**La sociedad civil y el voluntariado ante el envejecimiento activo**
*Real Sociedad Española de Medicina. Madrid. Junio,2023*



# Celebración de la Asamblea General Ordinaria en Llodio

*Ekainaren 27an, Arabako Laudio herrian ohiko batzar orokorra egin zen*



## DÍA DE LA ASAMBLEA

Desde primera hora de la mañana, varios autobuses y otro medios de transporte, fueron recogiendo a las personas voluntarias que se apuntaron a la Asamblea, que se celebró el 27 de junio. Su destino era el Casino del parque de Lamuza, ubicado en la localidad alavesa de Llodio. Un edificio levantado en el año 1927 por orden de los Marqueses de Urquijo y reinaugurado tras una obra integral, hace 6 años, en septiembre de 2017.

A las 11:00h (en segunda convocatoria) dio comienzo la Asamblea, con un orden del día que recogía la exposición de la memoria de actividad 2022 y las cuentas auditadas, así como los avances de la planificación del 2023.

Durante este año también ha habido cambios en la Junta Directiva. Arantza Palacio, de Bergara, ha dejado de ser Vocal y su lugar lo ha ocupado Joaquín Carames, de Amurrio.

## COMIDA EN LA PÉRGOLA

Una vez finalizada la Asamblea, el lunch se celebró en una pérgola rodeada de jardines. Una localización cedida por el Ayuntamiento y acondicionada para el evento.

## NUEVAS LOCALIZACIONES

Nuestra presencia en los 3 territorios históricos nos ha llevado a elegir una nueva localización para la celebración de la Asamblea Ordinaria. Hasta ahora siempre habíamos organizado este acto en Donostia-San Sebastián, pero de ahora en adelante, nos iremos moviendo por Álava, Vizcaya y Guipúzcoa.




### BATZARRAREN EGUNA

Ekainaren 27an, goizean goizetik, hainbat autobus eta beste garraiobide batzuk Batzarrean izena eman zuten boluntarioak jasotzera abiatu ziren. Arabako Llodio herrian dagoen Lamuza parkeko kasinoa zuten helmuga. 1927an Urkixoko markesek aginduta egindako eraikina, obra integral baten ondoren berrinauguratu zena, duela 6 urte, 2017ko irailean.

11:00etan (bigarren deialdian) Batzarra hasi zen, 2022ko jarduera-memoria eta auditatutako kontuak eta 2023ko plangintzaren aurrerapenak jasotzen zituen gai-zerrendarekin.

Aurten Zuzendaritza Batzordean ere aldaketak izan dira. Bergarako Arantza Palaciok Batzordekide izateari utzi dio eta Amurrioko Joaquín Caramesek hartu du bere lekua.

### BAZKARIA PERGOLAN

Batzarra amaitu ondoren, luntxa lorategiz inguratutako pergola batean egin zen. Udalak utzitako eta ekitaldirako egokitutako kokapena, hain zuzen ere.

### KOKALEKU BERRIAK

Hiru lurralde historikoetan egoteak Ohiko Batzarra egiteko kokaleku berri bat aukeratzera eraman gaitu. Orain arte Donostian antolatu izan dugu beti ekitaldi hau, baina hemendik aurrera Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan barrena ibiliko gara.

# Ohiko Batzar Nagusia Laudion ospatu da

EL 27 DE JUNIO SE CELEBRÓ LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA EN LA LOCALIDAD ALAVESA DE LLODIO





# Bera y Lesaka vuelven a colaborar con la DYA

# Bera eta Lesaka DYArekin elkarlanean




No sabemos cuándo nos podemos encontrar ante una situación de riesgo, pero como bien dice el refrán «más vale prevenir que curar». Y eso es lo que han hecho en el curso de primeros auxilios impartido en la zona de Bortziriak, en los municipios de Lesaka y Bera.

No es la primera vez que Nagusilan colabora con la DYA, y es que es un cursillo que tiene mucha demanda. Fueron más de 35 personas las que participaron y estuvieron atentas a las indicaciones del monitor, quien fue explicando las diferentes situaciones que se pueden dar y las soluciones para cada caso.

En el curso pudieron aprender a actuar ante un paro cardíaco o un atragantamiento, adquiriendo técnicas y poniéndolas en práctica con muñecos.

Ez dakigu noiz egon gaitezkeen arrisku-egoera baten aurrean, baina esaera zaharrak dioen bezala, «hobe da prebenitzea sendatzea baino». Eta horixe egin dute Bortzirietan, Lesaka eta Bera udalerrietan emandako lehen sorospenen ikastaroan.

Ez da Nagusilanek DYArekin kolaboratzen duen lehen aldia, eskaera handia duen ikastaroa baita. 35 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten, eta adi egon ziren monitorearen argibideei. Monitoreak eman daitezkeen egoerak eta kasu bakoitzerako konponbideak azaldu zituen.

Ikastaroan bihotzeko geldialdi baten edo eztarrian trabatuta geratzearen aurrean nola jokatu ikasi zuten, teknikak bereganatuz eta panpinekin praktikan eginez.







# El día 1 de julio se celebró el **XVIII Torneo de Golf Nagusilan** en el Real Club de Golf San Sebastián

En un ambiente inmejorable, las y los participantes pudieron disfrutar de un torneo que ya se ha consolidado y va por su edición nº 18. Cada año, el campo de Golf del Club ubicado en Hondarribia acoge la iniciativa de Nagusilan y envía 10 invitaciones para que las personas voluntarias puedan también participar. Para ello es indispensable tener un handicap de 36.

Nuestro más sincero agradecimiento también a las empresas patrocinadoras, gracias a sus aportaciones conseguimos sortear una cesta espectacular.

# Uztailaren 1ean **XVIII. Nagusilan Golf Txapelketa** ospatu zen Real Club de Golf San Sebastianen

Giro ezin hobean, parte hartzaileek dagoeneko 18. edizioan aurkitzen den eta erabat errotua dagoen txapelketaz gozatu ahal izan zuten. Urtero, Hondarribian dagoen Golf Klubeko zelaiak Nagusilanen ekimena babesten du eta 10 gonbidapen bidaltzen ditu boluntarioek ere parte har dezaten. Horretarako, ezinbestekoa da 36ko handicap bat izatea.

Gure eskerrik beroena enpresa babesleei ere, haien ekarpenei esker saski ikusgarri bat zozketatzea lortu dugu.



**ENPRESA BABESLEAK | EMPRESAS PATROCINADORAS**

- BOUTIQUE ARBELAITZ
- BOUTIQUE RIDEL
- DON PASCUAL
- FLORISTERIA HUNTZ
- PERFUMERIA URBIETA
- REAL CLUB NAUTICO DE SAN SEBASTIAN
- RESTAURANTE KAIA-KAIPE GETARIA
- ELUTXETA SAGARDOTEGIA
- HIKA TXAKOLIÑA
- CHILLIDA-LEKU
- LUKAS GOURMET
- ANTIGUA BIKE
- OIASSO MUSEOA
- SAGARDOETXEA
- ALKAIN
- HOTEL RIO BIDASOA/SUGARRI
- MIGUEL ANGEL MARTINEZ
- REAL SOCIEDAD
- RESTAURANTE ARDORA
- BEKO ERROTA
- IÑIGO ARISTEGI

# Nagusilan ejemplo de transformación digital

*El 12 de mayo se celebró el encuentro del Tercer Sector Social de Euskadi con la participación del Lehendakari*




El Centro Carlos Santamaría de Donostia acogió el acto organizado por Sareen Sarea, la asociación que agrupa a las redes y entidades del sector.

Con el lema **"Inspirando la semilla del cambio"**, Sareen Sarea reivindicó la necesidad de seguir trabajando por la transformación social, construyendo una Euskadi más diversa, inclusiva y solidaria.

## TRANSFORMACIÓN DIGITAL

El evento concluyó con una mesa redonda sobre Transformación Social en el Tercer Sector Social de Euskadi. En el coloquio moderado por **Lucía Merino** (coordinadora del Observatorio Vasco del Tercer Sector Social), se pudieron escuchar las **experiencias de distintas organizaciones sociales**. Concretamente, **Enara Solabarria** de Nagusilan, **Pablo Ruiz** de Bizitegi y **Lorenzo Martínez** de IRSEARABA quienes expusieron su visión particular y experiencias en torno a la transformación digital.

Sareen Sarea destacó la necesidad de abordar una construcción social de la transformación digital que incluya a las personas y sus necesidades. "Con el objetivo de lograr una transformación digital responsable debemos trabajar en red, desde lo colectivo, con una tecnología compartida y ética, orientada siempre a la transformación social".

# Nagusilan eraldaketa digitalaren adibide




MAIATZAREN 12AN HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN TOPAKETA BURUTU ZEN LEHENDAKARIAREN PARTE HARTZEAREKIN

Sareen Sareak, sektoreko sareak eta erakundeak batzen dituen elkartearen ekitaldia Donostiako Carlos Santamaría Zentroan ospatu zen.

**"Aldaketaren hazia inspiratuz"** lelopean, Sareen Sareak eraldaketa sozialaren alde lanean jarraitzeko beharra aldarrikatu zuen, Euskadi anitzagoa, inklusiboagoa eta solidarioagoa eraikiz.

## ERALDAKETA DIGITALA

Ekitaldia amaitzeko, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eraldaketa Sozialari buruzko mahai-ingurua egin zen. **Lucía Merino**k (Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiaren koordinatzailea) moderatutako solasaldian, **hainbat gizarte-erakunderen esperientziak** entzun ahal izan ziren. Zehazki, Nagusilaneko **Enara Solabarria**k, Bizitegiko **Pablo Ruiz**ek eta IRSEARABAko **Lorenzo Martínez**ek eraldaketa digitalaren inguruan duten ikuspegia eta esperientziak azaldu zituzten.

Sareen Sareak nabarmendu zuen beharrezkoa dela eraldaketa digitalaren eraikuntza sozialari ekitea, pertsonak eta haien beharrak barnean hartuta. "Eraldaketa digital arduratsua lortzeko helburuarekin, sarean lan egin behar dugu, kolektiboki, teknologia partekatu eta etiko batekin, betiere eraldaketa sozialera bideratuta".

Bideo ikusi
Ver vídeo

# Nahia Fernández de Lucas

## “El voluntariado es vocacional”

## “Boluntariotza bokaziozkoa da”




*Nahia Fernández de Lucas, voluntaria de Nagusilan Legazpi, ha participado en el programa «Ur Handitan» de ETB1.*

“Ur Handitan” es un programa de reportajes que analiza temas de interés y preocupación social. Todos los vídeos publicados hasta el momento (van por la 8ª temporada) están disponibles en la plataforma “A la carta” de EITB.

Nahia Fernández es voluntaria de Nagusilan Legazpi, a sus 18 años ha decidido dar el paso y unirse al grupo de su localidad para acompañar a las personas, que como su abuela, se encuentran en la residencia.

«Cuando mi abuela entró en la residencia iba todos los días a visitarla y allí conocí a los compañeros de Nagusilan.»
Nahia considera que el voluntariado es vocacional, ya que desde pequeña ha tenido claro que tenía esa necesidad de ayudar a la gente.

Nahia ¡Gracias por difundir los valores del voluntariado y de la asociación!




*ETB1eko «Ur Handitan» saioan parte hartu du Nagusilan Legazpiko boluntaria den Nahia Fernández de Lucasek.*

Gizartean interesa eta kezka sortzen duten gaiak aztertzen dituen erreportaje saioa da «Ur Handitan» eta EITBko «Nahieran» plataforman daude orain arte argitaraturiko bideo guztiak eskuragarri, 8. denboraldian daude dagoeneko.

Nahia Fernández Nagusilan Legazpiko boluntarioa da, eta 18 urterekin herriko taldean sartzea erabaki du, bere amona bezala egoitzan dauden pertsonei laguntzeko.

«Amona erresidentzian sartu zutenean egunero joaten zen nintzen bisitatzera, eta han Nagusilaneko kideak ezagutu nituen.»
Boluntariotza bokaziozkoa dela uste du Nahiak, txikitatik argi izan baitu jendeari laguntzeko premia hori zuela.

Eskerrik asko Nahia elkarteko boluntariotzaren balioak lau haizetara zabaltzegatik!



# Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan eta Nagusilan Notiziak WhatsApp difusio taldearen bitartez.

# Síguenos en nuestra redes sociales y mediante el grupo de difusión de WhatsApp Notiziak.




***Obtén información al momento*** sobre las ***últimas necesidades*** de voluntariado, encuentros, noticias importantes…

***Lortu unean*** uneko boluntariotza ***beharrei***, topaketei, albiste garrantzitsuei eta abarri buruzko ***informazioa***.

**facebook.com/nagusilan**

**instagram.com/nagusilan/**

**688 750 352**

*Puedes leer y descargar la revista de Nagusilan en nuestra web*

**https://nagusilan.org/revista-nagusilan/**

*Nagusilanen aldizkaria irakurri eta deskargatu dezakezu webgunean*

**https://nagusilan.org/eu/nagusilan-aldizkaria/**